



## EGUNERATZE IKASTAROA:

# ***GURASOEN INTERFERENTZIAK: DETEKZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU-HARTZEA.***

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzua**

**Talde Psikosozial Judiziala. Justizia Sailburuordetza. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza.**

## ARRAZOITZEA:

Zaintza eta babesaren ebaluazio psikosozialak gero eta espezializazio handiagoa behar du, betiere bereziki gatazkatsuak diren familia auzietan, zeinetan, batzuetan, genero indarkeriako edo haurren abusu sexualeko salaketa bat baitago, adingabeak tarteko. Espezializazio horrekin, izan ere, erantzun eraginkor bat eman ahal izango da, dela arazoaren ebaluazio forentsearen ikuspuntutik, dela behar den esku-hartze espezializatutik begiratuta.

Zentzu horretan, bereziki garrantzitsua da *guraso interferentziak* esaten zaionaren ebaluazioa eta tratamendua (prozesu horietan seme-alabek ez dute, erabat edo zati batean, aitaren edo amaren jatorrizko familiarekiko harreman normalizatu eta beharrezko bat, ezta giro sozialarekiko ere, batez ere urruntze hori guraso batek sustatzen duenean adingabea bestearengatik urruntzearen). Horrela, oso garrantzitsua da, haurren egonkortasun emozionalerako, adingabearen intereseko babesaren ebaluazioa egitea, egoera bereziki gatazkatsuetan dagoenean (genero indarkeriakoak edo haurren abusu sexualaren salaketen bidez adingabearen instrumentalizazio gezurrezko bat bilatzen denean).

Ikastaro honek xede du interferentzia horiek detektatzeaz eta ebaluatzeaz, nahiz diagnosis, tratamendua eta jarraipena egiteaz arduratzen diren teknikariak modu praktikoan eguneratzea, ikuspegi integratzaile eta baterako batetik.

**NORENTZAT:** EAEko Talde Psikosozial Judizialeko kideak (koordinatzaileak, psikologoak, gizarte langileak eta hezitzaileak), Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren eta



Nerabeen Babeseko Zerbitzuko teknikariak (psikologoak, gizarte langileak, hezitzaileak,...), eta EAEko familientzako elkarguneetako teknikariak (psikologoak, gizarte langileak, hezitzaileak,...).

**DATA:** 2016ko otsailak 4 eta 5

**LEKUA:** Atotxako Justizia Jauregia. Kalkutako Teresa Plaza z.g., 4. solairua (prestakuntza gela). 20012 Donostia.

### HELBURUAK:

- Deskribatu diren egoeren detekzio, diagnosi, esku-hartze eta jarraipenean sakontzea, esparru teoriko-praktikoan eta adingabearen interesean: gurasoen interferentziak eta familia barruko indarkeria egoerak.
- Beste lekuetako praktikak ezagutzea, gure ingurunean aplikatu ahal izateko.
- Esperientziak trukatzeko, praktika profesionala aberasteko.
- Deskribatutako ebaluazioak protokolizatu ahal izatea.

### METODOLOGIA:

- Irakasleek gomendatutako bibliografiaren aldez aurreko irakurketa.
- Azalpen teoriko-praktikoa.
- Kasu praktiko errealen azterketa.
- Taldeko eztabaida.

### PROGRAMA:

#### 2016ko otsailak 4, osteguna (5 ordu)

9:00etan: Ikastaroaren aurkezpena.

**9:05ean: Sarrera tekniko eta legala, gurasoen interferentzia kasuei aplikatzen direnak.**

***Aurora Elosegui Sotos.***

**9:45ean: Gurasoen interferentziak detektatzea, ebaluatzea eta diagnostikatzea, familia prozesuetan:**

- Gurasoen interferentziak adingabeen instrumentalizazioaren ondorioz familiako auzi prozesuetan.



- Instrumentalizazioaren ondoriozko interferentziak haurren sexu abusuen salaketa faltsuetan.
- Generozko tratu txarren bizipenaren ondoriozko interferentziak seme-alabengan.
- Kasu praktikoak.

***M<sup>a</sup> Paz Ruiz Tejedor.***

### **2015eko otsailak 5, ostirala (5 ordu)**

#### **9:00etan: Esku-hartzea eta jarraipena gurasoen interferentzia kasuetan:**

- Orientazio terapeutikoak gatazka maila handiko familietan.
- Metodologia.
- Esku-hartze teknikak.
- Gurasoen interferentzien biktimekin esku-hartzeko programa: helburuak, moduluak eta unitateak, esku-hartzea.
- Esku-hartze adibideak. Kasu praktikoak.

***Asunción Tejedor Huerta***

#### **IRAKASLEAK:**

***Aurora Elosegui Sotos:*** Abokatu, zuzenbide zibilean espezialista. 10 urtez jardunean Donostian eta Madrilen. 1986tik epailea, jardunean, La Lagunan eta Madrilen. 1996tik magistratu titularra Donostiako Lehen Auzialdiko 6. Epaitegian (2003tik ezintasunetan eta internamenduetan espezializatua, eta 2012tik baita familia gaietan ere). Irakasle elkartua, Madrilgo Autonomia Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko katedran.

***M<sup>a</sup> Paz Ruiz Tejedor:***

Auzitegiko psikologoa, psikologia klinikoan espezialista, Madrilgo Plaza Castillako epaitegietako auzitegiko mediku klinikako titularra.

Hainbat master eta graduondoko egin ditu auzitegiko psikologiaren arloan. Irakaslea da garapenerako nazioarteko laguntzako agentzia espainiarrean.

Nazioarteko trebatzaile eta hezitzailea, biktimologian aditua, zehazki haurren tratu txarretan, sexu abusuetan eta genero indarkerian. Anuario de Psicología Jurídica aldizkariko zuzendariordea.

Gaiarekin lotutako hainbat argitalpen eta artikulu kaleratu ditu.

***Asunción Tejedor Huerta:***

Psikologian lizentziatua, Granadako Unibertsitatean (1986); Bitartekaritza Familiarrean aditua, Oviedoko Unibertsitatean (2009); Diagnostikoan eta terapietan masterra,



Maslow-Catell Institutuan (1996); Psikiatria Infantileko laguntzailea (1981), Osasuneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

Espainiako Psikologia Juridikoko Elkarte Iberoamerikarreko lehendakaria.

Espainiako Psikologia Kontseilu Nagusiko Psikologia Juridikoko Ataleko Zuzendaritza Batzordeko kide hautetsia.

Psikoterapiako espezialista ziurtagiria (Psikologoek Elkarteko Europako Federazioa, 2013).

1993tik psikologo juridiko eta sanitario gisa jarduten da, kontsulta pribatuan eta peritu judizial gisa.

Asturiasko Psikologoek Elkargo Ofizialeko Psikologia Juridikoko Batzordea koordinatu du 2001etik 2012ra, eta Elkargo Ofizial horretako Prestakuntza Atala koordinatu du 2003tik 2004ra.

Nazioarteko eta nazio mailako hainbat biltzarretan parte hartu du, hizlari gisa, eta irakasle izan da Psikologia Juridikoko Masterreko ikastaroetan eta Psikologoek Elkargo Ofizialek antolatutako ikastaroetan.

Alienazio Parentalaren Sindromeari eta Gurasoen Interferentziei buruzko artikulu eta liburu ugari idatzi ditu.

#### IZEN-EMATEA:

Deiturak eta izena: .....

NAN: .....

Lanpostua: .....

Lantokia:

Harremanetarako tel.: .....

E-posta: .....

(bidali koordinatzaileari edo dagokion zerbitzuburuari).